

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

4776

AGINDUA, 2019ko urriaren 1ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteentzako 2019ko ekitaldirako laguntzen deialdia egiten baita. Laguntza horiek Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programan jasota daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten nekazarien elkarteak eta horien batasunak aitortzeko oinarrizko arauak eta betekizunak ezartzea.

Halaber, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) esparruan, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programa onartu da Europako Batzordearen 2015-05-26ko Erabakiaren bidez. Erabaki horretan, ekoizleen talde eta erakundeak sortzen laguntzeko asmoz, elkarrekin finantzaturako neurri bat jasotzen da, zeinaren bidez nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako ekoizleen talde eta erakundeei laguntzen baitaie (M09 neurria). Bestalde, otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren bidez, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezarri da.

Hori dela eta, agindu honen bidez, 2019ko ekitaldirako deialdia egiten da Euskadiko Landa Garapenerako Programan sartutako laguntzak eskatzeko programak indarrean dirauen bitartean aitortzen diren ekoizle-taldeentzat, otsailaren 14ko 43/2018 Dekretuaren 21. artikularekin bat.

Bestalde, 1/2011 Legegintzako Dekretuak eta 5/2017 Legeak ahalbidetu egiten dute aurtengo ekitaldirako laguntzarako deialdia egitea (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bitartez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen da, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena arautzen da; abenduaren 22ko 9/2015 Legearen bidez, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dira, 2019rako luzatuak).

Agindu honetan jasotako laguntzei Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hori dela bide, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programa berrian jasotako laguntzen deialdia egitea 2019ko ekitaldirako, programak indarrean dirauen bitartean aitortzen diren nekazaritza- eta basogintza-ekoizleen elkarte edo erakundeak eta horien batasun edo federazioak sortzeko.

2.– Laguntza hauek Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren barruan daude eta bertan ezarritako baadintzak bete behar dituzte, bai eta otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan ezarritakoak ere –dekretu horren bidez ezarri da 2015-2020ko aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia–.

Bigarrena.– Onuradunak eta betekizunak.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak jaso ahal izango dituzte nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako ekoizleen elkarte edo erakundeek eta horien batasun edo federazioek, baldin eta 2015etik aurrera eratu eta halakotzat onartuta badaude, honako hauek aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretua, edo Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretua, eta horiek egokitzeko aginduak.

2.– Kapitulu honetan deitutako laguntzak eskatu ahal izango dituzte nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako ekoizleen elkarte edo erakundeek eta horien batasun edo federazioek, baldintza orokor hauek betetzen badituzte:

a) Halakotzat onartuta egotea honako hauek aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretua, edo Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta baso-ekoizleen elkarteei eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarrilaren 30eko 10/2018 Dekretua, eta horiek egokitzeko aginduak. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien eta Baso-ekoizleen Elkarteen eta horien Batasun edo Federazioen Erregistroan inskribatuta egotea.

b) Elkartearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egotea.

c) 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasotako edozein laguntza ematerakoan hartutako konpromisoak betetzea edo bete izana.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ere.

e) Ezingo dira onuradun izan laguntza publikoak lortzeko zigorra, administratiboa edo penala, duten elkarteak, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenak ere. Halaber, ezingo dute dirulaguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratiboa edo penalik duten elkarteak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat. Halaber, ezingo dira laguntza hauen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. ataletan jasotako egoeretakoren batean dauden pertsona edo erakundeak; egoera horiek aipatutako lege horren 13. artikulua 4., 5. eta 6. ataletan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira.

3.– Era berean, honako berariazko baldintza hauek bete beharko dituzte elkarteek:

a) Tamainari begira, ezin izango dute gainditu ETE kategoria, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat.

b) Elkarateak bere elkartekideen ekoizpenaren zati bat merkaturatu beharko du, eta honako helburu hauetako bati lotuta egon beharko du:

– elkarte edo erakunde horietako kideen ekoizpena eta etekina merkatuaren eskarietara egokitzea;

– produktuak elkarrekin merkaturatzea; eta horren barruan sartzen da salmentarako prestatzea, salmenten zentralizazioa eta handizkakoak hornitzea;

– ekoizpenaren inguruko informazioari buruz arau komunak ezartzea, bereziki uztari eta prestasunari erreferentzia eginez; eta

– ekoizle-elkarteek egin ditzaketen beste jarduera batzuk egitea; esaterako, enpresa- eta merkatu-gaitasunak garatzea eta prozesu berritzaileak antolatzea eta erraztea.

c) 5 urterako plan enpresariala aurkeztu beharko dute, bertan merkaturatze- eta fakturazio-aurreikuspenak adierazi eta, gutxienez, betekizun hauek jaso beharko dituzte:

– produktua ekoizteko guztiek erabiliko dituzten arauak; programazioa, kalitate-sistemak eta, hala badagokie, erabiliko dituzten metodo ekologikoak edo praktika biologikoak;

– ekoizpena ezagutzeko arauak;

– merkaturatzeko eta informazioa emateko guztiek baliatuko dituzten arauak;

– aurreikusitako negozio-zifra eta ekoizpen-bolumena, elkarteak aitortzea lortzea eragin duten produktuena; eta

– honako konpromiso hauek:

• Edo merkaturatze-bolumenean edo bazkide-kopuruan, lehenengo hiru urteetan % 10 haztea, eskaera egin den urteko datu egiaztatuak aintzat hartuta.

• Edo merkaturatze-bolumenean edo bazkide-kopuruan, lehenengo lau urteetan % 20 haztea, eskaera egin den urteko datu egiaztatuak aintzat hartuta.

4.– Agindu honetan jasotako laguntzak onuradunei emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen eremuan hasitako edozein itzulketak edo zehapen-prozedura amaituta egotea.

Hirugarrena.– Finantzaketa eta emateko prozedura.

1.– 2018-2019ko kanpainarako aurreikusitako laguntzak finantzatzeko, 500.000 euro bideratuko dira, honela banatuta:

– 38.795 euro, LGENFren kargura,

– 9.698,75 euro, kofinantzaketa kontzeptuagatik Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura.

– 451.506.25 euro, finantzaketa gehigarri nazional gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan kontura.

Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtsa (LGENF) agortu arte, funts horrek % 80an kofinantzatuko ditu laguntzak, eta, behin agortuta, funts propioekin soilik finantzatuko dira laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, finantzaketa osagarri nazional gisa.

2.– Agindu honetan araututako laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Baldin eta ebazpen-zati honen 1. paragrafoan ezarritako zuzkidura osoa ez bada aski aurkezten diren eskabide

guztietarako, puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie laguntzak, baremo honen arabera:

a) Dagoeneko eratuta eta aitortuta dauden ekoizleen elkarteek edo horien batasunek eginiko eskabideak: 20 puntu.

b) 5 urterako negozio-planean produktuaren merkaturatze-bolumenik handiena aurreikusten duten ekoizleen elkarteek edo horien batasunek eginiko eskabideak: 10 eta 6 puntu artean.

Berdintasuna mantentzen bada, 5 urterako negozio planean bazkide-kopuruaren eta/edo produktuaren merkaturatze-bolumenaren hazkunderik handiena aurreikusten duten espedientei emango zaie lehentasuna.

Laugarrena.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak bateraezinak dira fruta- eta barazki-ekoizleen elkarteentzako laguntzekin; izan ere, azken horiek euren berariazko araudia dute.

2.– Beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek agindu honetan ezarritako xede bererako ematen dituzten laguntzak ere agindu honetakoekin bateragarriak izango dira, baldin eta dirulaguntzek, batzuk eta besteak gehituta, agindu honetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte. Hala ere, bateraezinak izango dira Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak xede bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Laguntza guztien baturak esandako mugak gaindituz gero, agindu hau dela bide emandako laguntzari muga horretatik gorako kopurua kenduko zaio.

Bosgarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako ekoizleen elkarteentzako laguntza –2015etik aurrera eratu eta halakotzat onartutako elkarteentzako– hau izango da:

– Merkaturatutako produkzioaren % 9, lehenengo urtean.

– Merkaturatutako produkzioaren % 8, bigarren urtean.

– Merkaturatutako produkzioaren % 7, hirugarren urtean.

– Merkaturatutako produkzioaren % 6, laugarren urtean.

– Merkaturatutako produkzioaren % 5, bosgarren urtean.

Lehenengo urtean, ekoizleen elkarte edo erakundeko kideek elkarte edo erakundean sartu aurreko hiru urteetan merkaturatutako produkzioaren urteko batez besteko balioan oinarrituz kalkulatuta ordaindu ahal izango da ekoizleen elkarte edo erakundeentzako laguntza.

2.– Ekoizleen elkarte edo erakunde bati, gehienez, 100.000 euro ordaindu ahal izango zaizkio urtean.

3.– Basogintza-sektoreko elkarteentzako laguntzen kasuan, neurriaren deskribapenean ezarritakoaz gain, estatuko laguntzei buruzko arauak aplikatuko dira, eta 2014tik 2020ra bitartean landa eremuetan nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako estatuko laguntzei aplikatu dakizkiekeen EBko zuzentarauen arabera emango dira.

Hala ere, basogintza-sektoreko ekoizleen elkarte edo erakunde bati, gehienez, 100.000 euro ordaindu ahal izango zaizkio urtean.

4.– Agindu hau aplikatzearen ondorioetarako, merkaturatze-kanpaina produktuaren ekoizpen- eta merkaturatze-ziklo naturalari egokituko zaio, eta, beranduenez, 2018ko irailaren 30ean bukatuko da.

Seigarrena.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Eskabideak aurkezteko, gehienez hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, hurrengo atalean adierazitako helbide elektronikoa sartuta.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak modu presentzian zein elektronikoa nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-en egoitza elektronikoa hauetan eskura daitezke:

– http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/

– http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/

Eskabidea egin osteko izapideak helbide elektronikoa honen bidez egingo dira: <http://www.euskadi.eus/micarpeta> eta <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulu hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua.

5.– Eskararekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

a) Legezko ordezkariaren ahalordetze-eskriuraren fotokopia.

b) Elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.

c) Eskara aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zerga.

d) Legezko ordezkariaren ziurtagiria, merkaturatutako ekoizpenaren bolumena eta balioa zehazten dituenak.

e) Bigarren ebazpen-zatiaren 3.c) atalean aurrez ikusitako enpresa-plana, laguntza eskatzen duen lehenengo urtea bada; ondorengo urteetan, plan horren aldaketak, hala badagokio.

f) Fusio baten pareko efektua duten neurriak hartzeko erabakien kopia, hala badagokio.

g) Honako hauei buruzko erantzukizunpeko adierazpena: aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla; deialdi-agindu honek eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela; ETEtat hartzen dela Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoarekin bat etorriz; beharrezko egiaztagiria guztiak dituela eta agiri horiek Eusko Jaurlaritzaren, Europako Batzordearen edo kontrol-organoen esku jarriko dituela, laguntza eman eta ordaintzeko baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatze aldera; konpromisoa hartzen duela aurreko baldintza eta betekizun horiek betetzeko, aitorpen edo baliatze horri dagokion denbora guztian; ez dagoela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion inolako legezko debekuren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.

h) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta daudela egiaztatzeari dagokionez, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango du organo

kudeatzaileak egoera horien egiaztapena zuzenenean jaso dezan, ziurtagiri telematiko bidez. Aurrekoa gorabehera, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

6.– Halaber, eskabidearekin batera, negozioko enpresa-planean aurreikusitako urteko fakturazioaren dokumentazioa aurkeztu beharko da, edo ekoizleen elkarte edo erakundeko kideek elkartean sartu aurreko hiru urteetan merkaturatu duten ekoizpenaren urteko batez besteko balioa, bosgarren ebazpen-zatiko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera; horretaz gain, 2018-2019ko ekitaldian benetan merkaturatutako ekoizpenaren balioaren eta ekoizpen-bolumenaren dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

7.– Interesdunak ez ditu aurkeztu behar izango aldeztatik edozein administrazioan aurkeztu dituen agiriak. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu zituen agiri horiek.

8.– Eskabideak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; aldeztatik Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaritza ebazpena emango du Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat.

9.– Horiek horrela, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo/eta informazio gehigarria eskatu ahal izango dio elkarte eskatzaileari, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta bideratzeko. Agindu honetan espresuki xedatu gabekoetan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Zazpigarrena.– Laguntzak kudeatzea.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza da laguntza hauek kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratzeko, honako hauek osatutako balorazio-batzorde bat eratuko da: Juan Ramón Puy Pitarque, Jon Ander Barrenetxea eta Marcos Barroso Vinagre. Horietako lehena batzordeburua izango da, eta azkenak idazkari-lanak egingo ditu.

3.– Balorazio-batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea, eta aplikatzekoa den araudia betetzen ez dutenak baztertzea. Baztertutako horien zerrrenda egingo du, eta banan-banan azalduko du zein izan den baztertzeko arrazoia.

b) Araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea, laguntzen irizpide objektiboen eta kuantifikazioaren arabera.

c) Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoari buruzko proposamen bat egitea. Proposamen hori behar bezala justifikatu eta arrazoitu beharko da.

Batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezar ditzake, eta, arau horiek aurreikusten ez dituzten gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era bitartean xedatutakoa aplikatuko da.

4.– Otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoarekin bat, aurkeztu diren eskabideak eta agiriak aztertuta, eta batzordeak helarazi dion proposamena ikusita, Nekazari-

tza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari dagokio deialdia ebaztea. Ebazpen-proposamenarekin bat ez datorren ebazpenik ematen badu, behar bezala arrazoitu beharko du.

5.– Agindu hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hileko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori igarota, berriazko ebazpenik ez badago, eskabideak ezetsi direla ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) apartatuko 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera, EHAAn argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat joko da. Hala ere, interesdun bakoitzari ebazpen osoa banan-banan jakinaraziko zaio, baina kasuan kasuko pertsonari berriaz eragiten dioten alderdiak identifikatuta agertuko dira. Nolanahi ere, lehenengo egin den jakinarazpenaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

6.– Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak laguntza emateko edo ukatzeko ematen duen ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera, edo, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zortzigarrena.– Ordainketa.

1.– Ordainketa bakarra izango da, eta aurreko ebazpen-zatian aipatutako dokumentazioa eskabidearekin batera aurkeztu ondoren egingo da, eskatzen den laguntza-motaren arabera.

2.– Ekoizle-elkarte onuradunek, abenduaren 31 baino lehen, memoria xehatua aurkeztu beharko dute, zeinak honako hauek jasoko baititu: dagokion urtean edo kanpainen ekoizle-elkartek egin dituen jardueren laburpena, berriaz aipatuta ekoizpen- eta merkaturatze-bolumena; bazkideen altak eta bajak; negozio-zifra, bai eta balantzea eta emaitza-kontua ere, enpresa independente batek behar bezala ikuskatuak.

3.– Eskatzaileei ez zaie laguntzarik ordainduko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere erakunde autonomoek emandako gisa bereko laguntza edo dirulaguntzengatik hasitako itzultze- edo zigor-prozeduraren batean sartuta badaude, eta prozedura horiek amaitu gabe badaude.

Bederatzigarrena.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Dirulaguntza zertarako eman den, helburu horretarako erabiltzea.
- b) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren esku jartzea beharrezko dokumentazio guztia.
- c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari laguntzak nola erabili diren eta laguntzen helburuak bete diren egiaztatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.
- d) Administrazio baten edo erakunde publiko zein pribatu baten beste laguntza edo dirulaguntzaren bat lortuz gero helburu bera betetzeko, horren berri ematea idatziz Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari.
- e) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat, aldatuz gero, objektiboa zein subjektiboa izan, horren berri ematea idatziz Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

Hamargarrena.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetako bat aldatuz gero edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batek beste laguntza edo dirulaguntzaren bat emanaz gero, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio idatziz, eta gerta daiteke horren ondorioz dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako gutxieneko betekizunak bete beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 49.12 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Ondorio horietarako, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak behar den aldaketa-ebazpena emango du, eta, bertan, dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doituiko dira; horretarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura aplikatuko da.

Hamaikagarrena.– Uko egitea.

Onuradunak automatikoki galduko du ebazpenaren bidez aitortutako eskubidea, bai eta laguntza osoa edo haren zati bat jasotzeko eskubidea ere, baldin eta laguntzari berariaz uko egiteko idazki bat aurkezten badu; Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak uko-egitea onartu beharko du, ebazpen bidez.

Hamabigarrena.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunek ez badituzte betetzen agindu honetako betekizunak edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak, edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako dirua itzuli egin beharko dute, osorik edo zati bat, behar diren berandutze-interesekin batera. Hori guztia, hauetan xedatutakoarekin bat: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

2.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzul-keta-prozedura, organo eskudunari jakinarazi behar zaizkio gertakariok, dagokion zigor-prozedura has dezan.

Hamahirugarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

Hamalagarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2019ko urriaren 16a, asteazkena

ERANSKINA



LGENF

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
Nekazaritza eta Abeltzaintza
Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
Dirección de Agricultura y
Ganadería

Ekoizleen
talde eta
antolakuntzak
sortzeko
neurria
LGP (9. N)

2019KO ESKABIDE-EREDUA

Nekazarien eta baso-ekoizleen elkarreentzako eta horien batasun edo federazioentzako laguntzak, zeinak 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota baitaude (9. neurria)

Izen-abizenak:

NAN zenbakia:

Hau ordezkatzeko du:

Elkartea:

IFZ/IFK Kalea eta zenbakia:

Telefonoa: Faxa: Helb. el.:

Udalerria: (Lurraldea): PK:

Jarduera-sektorea:

Harremanetarako pertsona: Tel.:

Honako laguntza hauek eskatzen ditu:

Agindu honetan ezarritako laguntzak, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programa aplikatuz.

Merkaturatze-kanpaina honetan, emaitza hauek lortu dira:

Produktua	Ekoizpen-bolumena	Merkaturatutako ekoizpenaren balioa



Enpresa-plana

	1. urtea		2. urtea		3. urtea		4. urtea		5. urtea	
	Bazkide zk.:	Negozio-bolumena	Bazkide zk.:	Negozio-bolumena	Bazkide zk.:	Negozio-bolumena	Bazkide zk.:	Negozio-bolumena	Bazkide zk.:	Negozio-bolumena
Aurreikusitakoa										
Benetakoa										

EGUNA ETA LEGEZKO ORDEZKARIAREN IZENPEA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskatzen zaizkizun datuak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, prozesatzeko. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen denez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara idazkia bidali beharko duzu, bera baita zure datuak tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabide-orria.
- Legezko ordezkariaren ahalordetze-eskrituraren fotokopia.
- Elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
- Eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zerga.
- Legezko ordezkariaren ziurtagiria, merkaturatutako ekoizpenaren bolumena eta balioa zehazten dituen.
- Agindu honen bigarren ebazpen-zatiaren 3.c) apartatuan aurreikusitako enpresa-plana, laguntza eskatzen duen lehenengo urtea bada; edo plan horren aldaketak, ondorengo urteetan, hala badagokio.
- Bat-egite baten pareko efektua duten neurriak hartzeko erabakien kopia, hala badagokio.
- Honako hauei buruzko erantzukizunpeko adierazpena: aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla; deialdi-agindu honek eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela; ETEtzat hartzen dela Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoarekin bat etorritik; beharrezko egiaztagiri guztiak dituela eta agiri horiek Eusko Jaurlaritzaren, Europako Batzordearen edo kontrol-organoen esku jarriko dituela, laguntza eman eta ordaintzeko baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatze aldera; konpromisoa hartzen duela aurreko baldintza eta betekizun horiek betetzeko aitortzen edo baliatze horri dagokion denbora guztian; ez dagoela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion inolako legezko debekuren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.

2019ko urriaren 16a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak: _____ NAN zk.: _____

Erakunde eskatzaile honen ordezkari gisa: _____ IFK: _____

HAU ADIERAZTEN DU:

a) Laguntza-eskabidean adierazitakoa egia dela, eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak direla; faltsutasunik edo datu okerrik azalduz gero, erantzukizun osoa bere gain hartuko duela; eta ez duela adieraziko faltsutasun edo datu oker horiek eragin dituzten gertaerak ez zituela ezgutzen.

b) Honako eskabide honetaz gainera, behean ageri diren erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatu diela, eta/edo haien laguntza jaso duela proiektu honetarako; eta, gainera, konpromisoa hartzen duela aurrerantzean ere proiektu honetarako aurkezten dituen laguntza-eskabide guztien berri emateko:

Eskaera-data	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako diru-laguntza

c) Deialdi-agindu honek eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela, eta ETetzat hartzen dela, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoarekin bat etorritz.

d) Konpromisoa hartzen duela beharrezkoak diren agiri guztiak Eusko Jaurlaritzaren, Europako Batzordearen edo kontrol-organoen esku jartzeko, laguntza eman eta ordaintzeko baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatze aldera.

e) Konpromisoa hartzen duela aurreko baldintza eta betekizun horiek betetzeko, aitorten horri dagokion denbora guztian.

f) Ez dagoela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion inolako legezko debekuren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.

_____, 2019ko _____ aren _____ (a).

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura eta zigilua